- » **Gertaerak sortu, editatu eta ezabatzea:** ukitu gertaera bat, irekitzeko, eta, jarraian, ukitu editatzeko aukera . Sakatu gertaera, eta ukitu menua  > **ELIMINAR** gertaera ezabatzeko.
- » **Egutegiak bistaratu, ezkutatu edo gehitzea:** ukitu . Google™ko kontuko egutegiak bistartzeko edo ezkutatzeko. Ordenagailu bat erabil dezakezu, Googleko kontuko egutegiak hemen gehitzeko edo ezabatzeko: [www.google.com/calendar](http://www.google.com/calendar).

**Aholkua:** gehitu **Calendario** aukeraren widgea zure mahaigainean. Luze sakatu pantaila nagusiko puntu huts bat, ukitu **WIDGETS** eta, ondoren, **luze sakatu** Calendario widgea, pantaila nagusira arrastatzeko.

# Aplikazio gehiago


## Google Play™

Googleren eduki digitalaren esperientzia duzu Google Play. Haren bidez, musika, filmak, TBko saioak, liburuak, aldizkariak, aplikazioak eta Androiderako jokoak bilatu eta haietaz goza dezakezu.


- » **Aplikazioak deskargatzea:** ukitu  **Play Store**
- » **Googleren saioa hastea edo kontu irekitzea:** ikusi [www.google.com/accounts](http://www.google.com/accounts).
- » **Googleren laguntza:** ikusi [www.google.com/support](http://www.google.com/support).

## Kontaktuak

Konbinatu zure Google™-ko eta sare sozialetako kontaktuen informazioa, zure ezagunetara azkar heltzeko.

**Aholkua:** funtzio gehienak kontaktuen fitxan dituzu , telefonoaren aplikazioan. Ikusi [Telefonoa](#).











**Joan hona:** irristatu gora  >  **Kontaktuak**



Kontaktuak ordenatzeko eta doikuntzak, kontuak eta beste aukera batzuk aldatzeko.







Ukitu hemen, kontaktu baten informazioa ikusteko, deitzeko, testu-mezu bat bidaltzeko eta abarrerako.

Kontaktu bat gehitzeko.

- » **Kontaktuak gehitzea:** ukitu .
- » **Editatzea edo ezabatzea:** ukitu kontaktu bat, eta, ondoren, ukitu  edo menua  > **Eliminar**.
- » **Deitzea edo SMS/MMSak edo mezu elektronikoak bidaltzea:** ukitu kontaktu bat, eta, ondoren, ukitu aukera bat.
- » **Kontaktuak bilatzea:** **Contacts** zerrendan, ukitu .  
**Aholkua:** bestela, pantaila nagusian, ukitu Googleko bilaketa-koadroa, eta sartu kontaktu baten izena.
- » **Kontaktu bat partekatzea:** ukitu kontaktu bat, eta, ondoren, ukitu menua  > **Share**, mezu batean edo mezu elektroniko batean bidaltzeko Bluetooth konexioa erabilia edo Google Drive™-n gordetzeko.  
**Aholkua:** ukitu kontaktu bat, eta, ondoren, ukitu menua  > **Añadir a la pantalla principal** pantaila nagusian kontaktu baten lasterbidea sortzeko.
- » **Sinkronizatzea:** telefonoan, irristatu gora  >  **Ajustes** > **Usuarios y cuentas**, hautatu Googleko kontua, eta, ondoren, ukitu **Sincronización de la cuenta** > menua  > **Sincronizar ahora** sinkronizatzeke (aspaldian eguneratu ez bada). Kontaktuak hemen ere ikus daitezke: [www.gmail.com](http://www.gmail.com).
- » **Zure xehetasunak eranstea:** erabiltzaile-profila gordetzeko, ukitu  > **Ajustes** > **Sus detalles**.



## Gogokoak

Ezarri kontakturik erabilienak gogoko gisa, haietara azkarrago iritsi ahal izateko.





- » Gogoko gisa jartzeko, irristatu gorantz  >  **Contactos**, hautatu kontaktu bat, eta ukitu .
- » Gogokoak ikusteko, irristatu gorantz  >  **Contactos**. Gogoko kontaktuak **MARCACIÓN RÁPIDA** zerrendaren goiko aldean ere agertzen dira, Telefonoa  aplikazioan.

## Kontaktuak berreskuratzea

Bildu kontaktu guztiak toki bakar batean.

- » Sare sozialetako zure kontaktuak eransteko, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Usuarios y cuentas**, eta ukitu **Añadir cuenta**.
- » Posta elektronikoko kontaktuak gehitzeko, ikusi [Gmail™](#)

**Aholkua: Exchange**-ko kontu bat gehitzen baduzu, lankideei mezua bidal diezazkiekezu, baita kontaktu-informazioa gordea ez baduzu ere.

- » Kontaktuak zure SIM txarteletik inportatzeko (automatikoki egin ez bada), irristatu gorantz  > **Contactos** > menua  > **Ajustes** > **Importar** > **Tarjeta SIM**. Ukitu **Aceptar** berresteko.
- » Kontaktuak zure ordenagailutik inportatzeko, igo kontaktuak zure Google kontura, helbide honetan: <http://contacts.google.com>. Telefonoan, irristatu gorantz  > **Contactos** > menua  > **Administrar cuentas** > **Sincronizar datos automáticamente**. Kontaktuak hemen ere ikus daitezke: <http://mail.google.com>.

Kontaktuak transferitzeko laguntza eskuratzeko, joan hona: [www.motorola.com/transfercontacts](http://www.motorola.com/transfercontacts).


## Maps

Bilatu gertuko jatetxeak, jaso jarraibideak edo nabigatu ahots bidez GPSarekin, pausoz pauso, Google Maps™ erabilia.

**Joan hona:** irristatu gora  >  **Maps**.

Idatzi bilatu nahi duzuna bilaketa-barran, edo ukitu  ahots bidez bilatzeko.

**Oharra:** baliteke zure mapa-pantailak beste itxura bat izatea.






Helbide edo kokapen bat ahots bidez bilatzeko.

Zure lekuak, mapak, doikuntzak, laguntza eta askoz gehiago ikusteko.

Gertuko jatetxeak, tabernak edo interesguneak topatzeko.

Uneko kokapena ikusteko.

Nabigazio-jarraibideak lortzeko.



- » **Helbide bat bilatzea:** Bilaketa-eremuan, idatzi helbide bat edo bilatzen ari zaren zerbait; jatetxe bat, adibidez. Ukitu elementu bat gehiago ikusteko, edo ukitu **LLA-MAR** edo **DIRECCIONES**.
- » **Jarraibideak jasotzea:** ukitu  **IR** eta, ondoren, idatzi tokia edo helbidea.
- » **Zooma:** irudia hurbiltzeko edo urruntzeko, hurbildu edo bereizi bi hatzak pantailan.
- » **Biratzea eta okertzea:** biratu bi hatzak mapan, gorantz edo beherantz biratzeko edo okertzeko.
- » **Kokapenak partekatzea:** ukitu kokapen bat, hautatu helbidea, eta, gero, ukitu menua  > **Compartir**.
- » **Helbide bat identifikatzea:** luze sakatu mapako puntu bat, helbiderik hurbilena bistaratzeko.
- » **Maparen laguntza lortzea:** ukitu  > **Ayuda**

Mapei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [support.google.com/maps](http://support.google.com/maps).

## Drive

Gorde argazki, bideo, dokumentu eta askoz elementu gehiago leku pribatu batean segurtasun osoz, partekatzea erabakitzen ez baduzu behintzat. Eskuragarri Google Drive™n, gailu guztietan.

**Joan hona:** irristatu gora  >  **Drive**

- » Beste fitxategi edo karpeta bat sortzeko, ukitu .
- » Hautatu fitxategi bat, irekitzeko.
- » Dokumentu bat editatzeko, ukitu .

## Musika, filmak, TBa eta YouTube


### Musika

Musika edonon dago, eta, orain, entzun, erosi, gorde eta erreproduzitu egin dezakezu. Sortu erreprodukzio-zerrendak edonoi.

**Joan hona:** irristatu gora  >  **Play Music.**

Zure musika-liburutegia ordenagailua erabiliz Google Play Músican igotzeko, ikusi [www.google.com/music](http://www.google.com/music).

Ukitu **Escuchar ahora**, aholkuak eta askoz gehiago ikusteko.

**Aholkua:** partekatu abestiak zuzenean zure kontaktuekin. Ukitu menua  abesti baten ondoan > **Compartir**. Ikusi [Direct Share](#)

Play Música aplikazioari buruzko informazio gehiago jakiteko, ikusi [support.google.com/music](http://support.google.com/music).

**Oharra:** copyright, badituzu eskubideak? Bete itzazu beti arauak. Ikusi "Edukiaren egi-le-eskubideak", telefonoaren lege- eta segurtasun-informazioan.

### FM irratia

**Joan hona:** irristatu gora  >  **Radio FM.**

Konektatu entzungailuak eta erabili maiztasun handiagoa edo txikiagoa duen kate bat sintonizatzekeo.

**Oharra:** telefonoak funtzio berezi bat du —maiztasun-modulazioko irrati-difusioko har-gailu-funtzioa (FM)—, irrati-seinalea jasotzeko datuak erabili beharrik gabe. Telefonoak automatikoko sintonizatuko ditu seinalerik onena duten irrati-kateak.



## Filmak eta telebista

Bilatu eta alokatu telebistako programak eta filmak, tabletan edo ordenagailuan ikusteko:

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Play Películas y TV.**







Ordenagailuan filmak erosteko, alokatzeko edo ikusteko, zoaz hona: [play.google.com/store/movies](http://play.google.com/store/movies).



### YouTube™

Ikusi YouTubeko erabiltzaileen bideoak eta podcastak edonon, eta hasi saioa zeure bideoak partekatzeko. **Joan hona:** irristatu gora  >  **YouTube**

## Erlojua

**Joan hona:** irristatu gora  >  **Reloj**

Aukerak	
<b>Alarma</b>	Ukitu  . Ukitu alarma bat, editatzeko, edo ukitu  , alarma berri bat gehitzeko. <b>Aholkua:</b> sakatu bolumen-botoiak gorantz edo beherantz alarma bat konfiguratzeko ari zarela, alarmaren bolumen-maila definitzeko. Alarma batek jotzen duenean, ukitu eta arrastatu  desaktibatzeko, edo irristatu <b>Zz</b> aukerara, hamar minutuz atzeratzeko.
<b>Reloj</b>	Alarmaren bolumena, atzeratzeko denbora edo beste doikuntza batzuk aldatzeko, ukitu menua  > <b>Ajustes</b> . Beste ordu-zona batzuetarako, ukitu <b>Zona horaria de casa</b> .
<b>Temporizador</b>	Tenporizadorea aktibatzeko, ukitu  .
<b>Cronómetro</b>	Kronometroa aktibatzeko, ukitu  .

**Aholkua:** uneko data eta ordua, ordu-eremua eta formatuak zehazteko, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Sistema** > **Fecha y hora**



# Konexioa, erabilera partekatua eta sinkronizazioa

Konektatu osagarriak, ordenagailuak, sareak eta askoz gehiago.

## WiFi sare batera konektatzea

### WiFi konexioa aktibatzea eta desaktibatzea

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Red e Internet** > **Wi-Fi** eta, ondoren, ukitu etengailua, aktibatzeko.

WiFi konexioa aktibatua dagoenean, telefonoa automatikoki konektatzen da lehen erabili izan dituen eta erabilgarri dauden sareetara.

**Oharra:** WiFi konexioa aktibatu eta desaktibatzeke aukera duzu hemen ere: [Ezarpen azkarrak](#).

### Sareetako konexioa

Irismenaren barruan sareak bilatzeko:

- 1 Irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Red e Internet** > **Wi-Fi**
- 2 WiFi-a aktibatuta dagoela, ukitu bilatutako sareetako bat sare horretara konektatzeko. Konektatuta dagoenean, ikusi  egoera-barran.

**Oharra:**Galdera-ikur bat ikusten baduzu WiFi-aren egoeraren adierazlean,  zabaldu egoera-barra, ukitu sarea, eta idatzi sarearen pasahitza.

### WiFi eremua

Telefonoa WiFi eremu bihur dezakezu, modu mugikor eta praktikoan sarbidea izateko Internetera eta aktibatutako beste WiFi gailu batzuetara. Telefonoak deskonektatu egiten du WiFi-a, eta sare mugikorra erabiltzen du Internetera konektatzeko. Baliteke zerbitzu-hornitzaileak harpidetza gehigarri bat egiteko eskatzea funtzio horretarako.

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Red e Internet** > **Mi zona Wi-Fi y Compartir Internet** eta ukitu **Zona Wi-Fi móvil**

**Oharra:** urrats horiek desberdinak izan daitezke sarearen arabera.

- 1 Ukitu **Configurar zona Wi-Fi**, segurtasuna konfiguratzeko:
  - **Sarearen izena:** sartu izen bakar bat zure eremurako.

- **Segurtasuna:** aukeratu erabili nahi duzun segurtasun-mota. **Ninguno** edo **WPA2 PSK**. **WPA2 PSK** aukerarako, sartu pasahitz bakar bat (8 karakterekoa), beste erabiltzaileek ere zure WiFi eremura sartzeko beharko dutena.

**Oharra:** Inor baimenik gabe zure telefonoan eta zure WiFi gunean sar ez dadin, konfiguratu segurtasun-metodoren bat (WPA2 da seguruena), eta erabili pasahitz bat.



2 Ukitu **GUARDAR**.

### WiFi moduak

Telefonoa bateragarria da WiFi modu hauekin: 802.11 b, g, n.

## Haririk gabeko Bluetooth konexioa

### Bluetootha aktibatzea eta desaktibatzea

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Dispositivos conectados** > **Bluetooth** eta, ondoren, irristatu etengailua, aktibatzeko.




Bluetooth konexioa aktibatua dagoenean, telefonoa automatikoki konektatzen da lehen erabili izan dituen eta erabilgarri dauden gailuetara. Gainera, Bluetooth aktibatzeak aukera ematen die beste gailu batzuei zure telefonoa bilatzeko.

**Oharra:** Bluetooth konexioa aktibatu eta desaktibatzeke aukera duzu hemen ere: [Ezarpen azkarrak](#).

**Aholkua:** bateriaren iraupena luzatzeko edo konexioak geldiarazteko, itzali bluetooth-konexioa erabiltzen ari ez zarenean.

### Gailuen konexioa

Bluetootha darabilen gailu bat konektatzen duzun lehen aldian, jarraitu hemen azaltzen diren urratsei:

- 1 Ziurtatu loturarako erabiltzen ari zaren gailua ikusgai dagoela (ikusitako gailuak zekarren eskuliburua, informazio gehiago eskuratzeko).
- 2 Irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Dispositivos conectados** > **Bluetooth**
- 3 Bluetootha aktibatuta dagoela, hautatu aurkitutako gailu bat, konektatzeko (behar izanez gero, ukitu **VINCULAR**, edo idatzi pasahitza, hala nola **0000**).  ukituz gero, gailuaren izena aldatu dezakezu eta hautatu zertarako erabili.

Gailua konektatzen denean, bluetootha konektatuta dagoela dioen adierazlea  agertuko da pantailaren goiko aldean.

Gailu bat automatikoki **deskonektatzeko** edo **berrirri konektatzeko**, itzali edo piztu.

**Oharra:** gidatzen duzun bitartean osagarri edo gailu mugikor bat erabiltzeak arreta galaraz dezake, eta debekatuta dago. Errespetatu beti legeak, eta gidatu era seguru batean.

## Fitxategiak transferitzea

» **Argazkiak edo bideoak:** ireki argazkia edo bideoa, eta, gero, ukitu  > **Bluetooth**.

» **Kontaktuak:** irristatu gorantz  >  **Contactos**, hautatu pertsona bat, eta, gero, ukitu menu  > **Compartir** > **Bluetooth**.

## Fitxategiak ordenagailuarekin partekatzea

**Oharra:** copyright, badituzu eskubideak? Bete itzazu beti arauak. Ikusi "**Edukiaren egi-le-eskubideak**", telefonoaren lege- eta segurtasun-informazioan.

### USBa:

Musika, irudiak, bideoak, dokumentuak edo beste fitxategi batzuk ordenagailutik igotzeko, konektatu telefonoa ordenagailura, USB kable baten bidez. USB konexio mota aldatzeko, irristatu beherantz egoera barra, eta ukitu **USB**.

**Aholkua:** Ziurtatu telefonoa potentzia handiagoko USB ataka batera konektatzen duzula.




**Oharra:** USB konexioa erabiltzen duzun lehen aldian, baliteke ordenagailuak esatea kontrolagailuak instalatzen ari direla. Segitu instalazioa burutzeko erakusten diren jarraibide gutzietan. Baliteke prozesu horrek minutu batzuk behar izatea.

» Microsoft® Windows®-rako: ordenagailuan, hautatu Hasi, eta, ondoren, hautatu Windows arakatzaila, programen zerrendan. Telefonoa unitate konektatu gisa (biltegitratze masiboko gailu gisa) azalduko da Windows arakatzailan, eta fitxategiak hara arrastatu ditzakezu. MTP edo PTP gailu gisa ere azaldu daitezke. Hala, fitxategiak transferitzeko erabil daitezke Windows Media erreproduzitzailea. Kontrolagailuan fitxategi edo argibide gehiago lortzeko, ikusi [www.motorola.com/support](http://www.motorola.com/support).

» Apple™ Macintosh™-rako: erabili Android File Transfer; hemen dago eskuragarri [www.android.com/filetransfer](http://www.android.com/filetransfer).

## Sare pribatu birtualak (VPN)

VPNez aukera ematen dute fitxategietara sare seguru baten bidez sartzeko (suebakia duen bulegoko sare bat, adibidez). Jarri harremanetan sarearen administratzailearekin VPNaren doikuntzei eta aplikazio edo eskakizunei buruz galdetzeko.

VPNaren doikuntzetara sartzeko, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Red e Internet** > **VPN**. Ukitu  VPN berri bat gehitzeko. Aukeratu VPN-mota, eta sartu sarearen administratzaileak emandako doikuntzak. Hautatu VPNaren izena, aukera horretara konektatzeko.

## Zure datu-konexioen erabilera partekatua

Zure ordenagailua Internetera konekta daiteke zure telefonoaren sare mugikorraren bidez, USB kable batekin.

1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable baten bidez.



**Oharra:** Ordenagailuak Microsoft® Windows® 7 edo Apple™ Macintosh™ OS X baino lehenagoko sistema eragile bat badu, baliteke konfigurazio berezia behar izatea.

2 Telefonoa, irristatu gorantz  >  **Ajustes** eta ziurtatu **WiFi-a** desaktibatuta dagoela.

3 **Ajustes** aukeran, ukitu **Red e Internet** > **Mi zona Wi-Fi y Compartir Internet** eta ukitu **Compartir conexión por USB**.

Konexioa geldiarazteko, ukitu berrirri **Compartir conexión por USB** eta, ondoren, deskonektatu telefonoa ordenagailutik.

## Inprimatzea



Argazkiak, dokumentuak eta bestelako elementuak telefonotik inprimatzeko, begiratu inprimagailuaren fabrikatzaileak aplikazioaren bat baduen Google Playn. Ondoren, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Dispositivos conectados** > **Impresión**, hasteko.

Hodeian dagoen edozein Android gailutara edo Google Drive-ra ere bidal ditzakezu argazkiak, dokumentuak eta beste elementu batzuk. Play Store-tik Cloud Print aplikazioa deskargatu besterik ez duzu egin behar.

## Hodeian sinkronizatzea

Edozein lekutatik (telefonoa, tableta eta ordenagailua) denerako sarbidea ematen duen kontua.

### Googleko kontua sinkronizatzea

Googleko kontu berean saioa hasten bada, gailu guztiak sar daitezke Google Play™ko aplikazio, film, liburu eta abesti beretara, eta Gmail, Google Calendar™ eta Google Mobile™ren gainerako zerbitzu mugikorrek parteka ditzakete. Zure telefonoari Google kontuak gehitzeko, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Usuarios y cuentas** > **Añadir cuenta** > **Google**.

### Telefonoa eta tableta

Android telefonoak eta tabletak batera lan egin dezakete, zuk ahalik eta etekin handiena atera diezaiezun:




- » **Fitxategiak eta multimedia-fitxategiak transferitzea:** fitxategiak telefonora kopia eta beste gailu batzuetara transferitzeko aukera duzu [Fitxategiak transferitzea](#) aukerarekin.
- » **WiFi gunea:** WiFi-a duen tableta bat badaukazu, konfiguratu telefonoa WiFi gune gisa zure tabletatik Internetera sartu ahal izateko edozein lekutatik. Ikusi [WiFi gunea](#).
- » **Bluetooth®-erako osagarriak:** zure tabletarekin bluetootha darabilen teklatu bat edo beste edozein osagarri erabiltzen baduzu, gogoan izan telefonoan ere erabili ditzakezula. Konektatzeko, ikusi [Haririk gabeko Bluetooth konexioa](#)

## Memoria-txartela erabiltzea

MicroSD txartel bat erabil dezakezu (berezita saltzen da) biltegi eramangarria edo barneko gisa:

- » **Biltegi eramangarria (lehenetsia):** gorde zure irudiak, bideoak, audio-fitxategiak eta beste multimedia-fitxategi batzuk. Edonoz atera dezakezu microSD txartela eta beste gailu batean sartu. MicroSD txartelean dauden multimedia-fitxategiak gailu horretan ikusi eta kopia daitezke.
- » **Barne-biltegia:** multimedia-fitxategiez gain, deskargatutako aplikazio batzuk ere gorde ditzakezu. MicroSD txartela telefonoaren barne-biltegiaren osagarri bat da.

**Oharra:** aplikazio batzuek ez dute funtzionatzen microSD txarteletik.

MicroSD txartela barne-biltegi gisa definitzeko, irristatu  >  **Ajustes** > **Almacenamiento**; hautatu microSD txartela, eta ukitu menua  > **Ajustes de almacenamiento** > **Formatear como almac. interno**.

**Kontuz:** microSD txartela barne-biltegi gisa ezarri baduzu, formateatu eta zifratu egiten da zure datuak babesteko. Biltegi-eramangarri gisa edo beste gailu batean erabili nahi baduzu, formateatu egin behar duzu berriro. Hori egin aurretik, gogoan izan formateatze-prozesuak microSD txartelean gordetako datu guztiak ezabatuko dituela.

**Oharra:** telefonoa bateragarria da 128 GBra arteko microSD txarteletan. Erabili 10. klaseko microSD txartel bat emaitza hobek lortzeko.


### Memoria-txartela instalatzea eta desinstalatzea

MicroSD txartel bat instalatzeko, telefonoan jarri besterik ez duzu (ikusi [SIM eta microSD txartelak sartzea](#))

MicroSD txartela desaktibatzeko (telefonotik erauzteko), irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Almacenamiento**. Ondoren, ukitu  microSD txartelaren izenaren ondoan.

**Kontuz:** ez atera microSD txartela telefonoa erabiltzen ari zaren bitartean edo txartel-fitxategiak idazten ari zaren bitartean.



## Hegazkin modua

Erabili hegazkin-modua haririk gabeko konexio guztiak desaktibatzeko hegazkinean bidaiatzen ari zaren bitartean. Mugitu egoera-barra beherantz, eta ukitu  > **Modo avión**.

**Oharra:** Hegazkin-modua hautatzean, desaktibatuta egiten dira haririk gabeko zerbitzu guztiak. WiFi-a edo bluetootha aktibatuta ez dagoz, aire-lineak hala egiteko baimena ematen badu. Haririk gabeko beste ahots- eta datu-zerbitzu batzuek (deiak eta testu-mezuak, adibidez) desaktibatuta jarraituko dute hegazkin-moduan. Zure herrialdeko larrialdi-zenbakira deitu ahal izango duzu, hala ere.

## Sare mugikorra

Ez da beharrezkoa sarearen doikuntzak aldatzea. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Sare-doikuntzen aukerak ikusteko, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Red e Internet** > **Red móvil**.

# Telefona babestea


Babestu ezazu zure telefonoko informazioa.

## Pantaila-blokeoa

Ziurtatu informazioa babestua duzula telefona galtzen den edo lapurtzen duten kasuetarako.

Zure telefona babesteko modurik errazena da ukipen-pantaila blokeatzea, erabiltzen ari ez zarenean. Desblokeatzeko, hatz bat irristatzea aukeratu dezakezu, edo eredu bat, PIN bat edo pasahitz bat sartzea.

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Ajustes > Seguridad y ubicación.**



Telefonorako zifratze-konfigurazioa administratzeko.

Pantaila desblokeatzeko sistema gisa eredu bat, pasahitz bat edo beste aukera batzuk erabil ditzakezu.

1 Hautatu blokeo-aukera bat:

» **Batere ez:** pantaila-blokeoa desaktibatzen du.

» **Irristatzea:** ukitu  eta arrastatu gorantz, desblokeatzeko.

» **Eredua:** marraztu eredu bat pantaila desblokeatzeko.

» **PINa:** sartu gutxienez 4 eta gehienez 16 digitu, pantaila desblokeatzeko.

» **Pasahitza:** sartu gutxienez 4 eta gehienez 16 letra, digitu edo sinbolo, pantaila desblokeatzeko.

2 Blokeo-mota bat hautatu ondoren, ukitu  pantaila-blokeoaren doikuntzak ikusteko.

Ukipen-pantaila modu etenean sartzeko unea aldatzeko, irristatu gorantz  >  **Ajustes > Pantalla > Opciones avanzadas > Suspender.**

**Oharra:** larrialdi-deiak egin ditzakezu blokeatutako telefono batetik (ikusi [Larrialdi-deiak](#)). Telefona blokeatuta egonda ere, jo egiten du, eta ez duzu PINa edo pasahitza sartu beharrik deiei erantzuteko.

## Hatz-markaren bidez desblokeatzea

Hatz-marken sentsorea ere erabil dezakezu zure telefona desblokeatzeko.

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Ajustes > Seguridad y ubicación > Huella digital.**

## Ezin duzu telefona desblokeatu?



Eredua, PINa edo pasahitza ahaztu baduzu, Google™-eko kontuko helbide elektronikoa eta pasahitza sar ditzakezu beste telefono batean telefona desblokeatzeko.



Googleko konturik ez baduzu telefonoan, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, fabrikako datuak berrezartzeko gailuan.

**Abisua:** Fabrikako datuak berrezarri gero, telefonoko datu guztiak ezabatuko dira.

## Pantailan finkatzeko funtzioa

Informazio garrantzitsuren bat eskura behar duzu, hala nola ontziratze-txartel bat edo deskontu-kupoi bat? Finkatu pantaila, erraz eskuratzeko informazio hori.

Pantailan finkatzeko funtzioa konfiguratzeko, irristatu gorantz  >  **Ajustes > Seguridad y ubicación > Fijación en pantalla** eta, gero, ukitu etengailua aktibatzeko.

Pantaila bat finkatzeko, ireki finkatu nahi duzun aplikazioa, eta luze sakatu **Recientes**  Ukitu .

Pantaila desaktibatzeke, luze sakatu Atzera egiteko tekla ◀ eta azkena erabiltzen botoia □ mezu hau bistaratu arte: **La pantalla ya no está fija.**

**Aholkua:** pantaila finkatzeko funtzioa aktibatuta dagoela telefonoa babesteko, ukitu **Solicitar PIN para desactivar.**

## Segurtasun-kopiak egitea eta leheneratzea

**Joan hona:** irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Sistema** > **Copia de seguridad** eta, ondoren, ukitu **Copia de seguridad en Google Drive** etengailua, aukera aktibatzeke.

Googleko kontuko datuek onlineko segurtasun-kopia izaten dute. Telefonoa berrabiarazi edo aldatzen baduzu, Googleko kontuan saioa hasi besterik ez duzu egin behar kontak-tuak, gertaerak eta kontu horrekin sinkronizatutako gainerako informazioa berreskuratzeko.

Google Play™ko aplikazioak berrezartzeko, ikusi [Aplikazioak zaintzea](#).

## Telefonoa zifratzea

**Kontuz:** Zifratze-kodea ahaztu bazaizu, ezin izango dituzu berreskuratu telefonoan edo memoria-txartelean gordetako datuak. Ordubete edo gehiago irauin dezake datu-zifratzeak. Utzi telefonoa konektatuta, eta ez eten prozesua inondik inora.

Telefonoko kontuak, doikuntzak, aplikazioak eta fitxategiak babesten ditu zifratzeak, telefonoa lapurtuz gero lor ez ditzaten.

**Ez zenuke aukera hau beharko,** baina telefonoa zifratu nahi baduzu telefonoa pizten den bakoitzean PIN bat edo pasahitz bat sartu behar izateko, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Seguridad y ubicación** > **Cifrado y credenciales** > **Cifrar teléfono.**

## Zure pribatutasuna

### Kokapena

Aplikazio batzuek, hala nola Mapak, zure kokapena galdetzen dute, informazioa emateko, adibidez helbideak, edo hurbilena dagoen gasolindegia aurkitzen laguntzeko.

» Kokapena aktibatzeke edo desaktibatzeke, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Seguridad y ubicación** > **Ubicación.**


» Zure kokapenera sarbidea duten aplikazioak zein diren ikusteko, sakatu **Permisos de las aplicaciones.**

### Pasahitzak

Telefonoak une labur batez pasahitzaren karaktereak erakusten ditu, idazten ari zarela. Aukera hori desaktibatzeke, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Seguridad y ubicación** eta ukitu **Mostrar contraseñas.**

## Aplikazioen segurtasuna

### Google Play™-ren aplikazioak

Lortu musika, filmak, liburuak, aplikazioak, jokoak eta askoz gauza gehiago. **Joan hona:**  **Play Store**

### Interneteko aplikazioak

Onlineko beste aplikazio-denda batzuetako aplikazioak eskuratu ditzakezu zure nabigatzailearen bidez.

**Aholkua:** kontu handiz aukeratu aplikazioak eta eguneraketak; baliteke haietako batzuek telefonoaren errendimenduari eragitea. Ikusi [Kontu handiz aukeratzea](#)

**Oharra:** aplikazio bat instalatzean, ziurtatu aplikazio horren bidez eskuratutako informazio-motaren berri ematen duten alertak irakurri dituzula. Ez baduzu nahi aplikazioak informazio hori eskuratzea, ezeztatu instalazioa.

Aukera eduki dezazun telefonoak instalatu ditzan Google Playn ez dauden aplikazioak, irristatu gorantz ^ > ⚙ **Ajustes** > **Aplicaciones y Notificaciones** > **Opciones avanzadas** > **Acceso especial de aplicaciones**, ukitu **Instalar aplicaciones desconocidas** eta hautatu baimendu nahi dituzun jatorriak.

### Kontu handiz aukeratzea

Kontuan izan aholku hauek:

- » Software espioia, nortasun-lapurretarako softwarea (phishing-a) edo birusak saihesteko, erabili konfiantzako guneetako aplikazioak; Google Playkoak, esaterako.
- » Kontsultatu aplikazioaren balorazioak eta iruzkinak instalatu aurretik. Aplikazio baten segurtasunari buruzko zalantzak badituzu, ez instalatu.

Aplikazioek memoria, datuak, bateria eta prozesatzeko ahalmena erabiltzen dituzte; batzuek bestek baino gehiago. Ez bazaude gustura aplikazio batek erabiltzen duen memoria-, datu eta bateria-kantitatearekin edo prozesatzeko ahalmenaren, desinstalatu aplikazio hori.

Kontrolatu haurrak zer aplikazioetara sartzen diren, egokiak ez diren edukiak ikus ez ditzaten.

Baliteke aplikazio batzuek ematen duten informazioa ez izatea guztiz zehatza. Kontuan izan hori, batez ere zure osasun pertsonalari lotutako kontuetan.

## Aplikazioen baimenak ezartzea

Baliteke aplikazio baten funtzio bat erabiltzean baimenak eskatzea.


Aplikazioen baimenen doikuntzak aldatzeko, irristatu gorantz **▲** > **Ajustes** > **Aplicaciones y Notificaciones** > **Permisos de las aplicaciones** eta ukitu funtzio bat (adibidez, mikrofonoa) ikusi dezazun zer aplikazioek duten hura erabiltzeko baimena. Ukitu baimenaren alboko etengailua, hura aktibatzeko/desaktibatzeko.

## Aplikazioak zaintzea

- » **Aplikazioak desinstalatzea:** pantaila nagusiko orriko aplikazio bat ezabatzeko, luze sakatu aplikazioa, eta, ondoren, arrastatu hona: **Eliminar**. Aplikazioa ez da ezabatzen telefonotik, pantaila nagusitik baino ez.
- » Aplikazio bat telefonotik ezabatzeko, luze sakatu aplikazioa, eta, ondoren, arrastatu hona: **Desinstalar**.
- » Aplikazio bat desgaitzeko edo geldiarazteko, irristatu gorantz **▲** > **Ajustes** > **Aplicaciones y Notificaciones** > **Información de las aplicaciones**. Ukitu aplikazioa, eta, ondoren, ukitu **INHABILITAR** edo **DESINSTALAR**. Gaitzeko, ukitu **HABILITAR** (ukitu behearantz begira dagoen tekla barruko aplikazioak ordenatzeko).
- » **Aplikazioak berriro instalatzea:** Google Playren aplikazioak berriro instalatzeko, irristatu gorantz **▲** > **Play Store** eta ukitu **Mis aplicaciones y juegos** > **Biblioteca**. Deskargatzen dituzun aplikazioak zerrenda batean bistaratuko zaizkizu, eta deskargatzeko prest izango dituzu.
- » **Aplikazioen xehetasunak ikustea:** luze sakatu aplikazio bat ukitu **i**.
- » **Aplikazioen datu-erabilera ikustea:** datu-kopuru gehien erabiltzen duten aplikazioak ikusteko, irristatu gorantz **▲** > **Ajustes** > **Red e Internet** > **Uso de datos**. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Datuak erabiltzea](#).

## Datuen erabilera

Telefonoan kargatzen eta deskargatzen duzun datu-kopuruaren jarraipena egin dezakezu. **Joan hona:** irristatu gorantz **▲** > **Ajustes** > **Red e Internet** > **Uso de datos**.



Ikusi zenbat datu erabili dituzunaldi horretan. Ukitu datu-erabilerrarako muga bat zehazteko.

Ukitu datu-aurrezkaillua aktibatzeke eta datu-erabilera murrizteko.

Zure uneko fakturazio-zikloa. Ukitu datu-mugak eta alertak ezartzeko.

Aplikazio batzuek bigarren mailan transferitzen dituzte datuak haiek ikusten ez dituzunean ere. Datu-erabilera modu hori gutxitzen laguntzeko, ukitu **Economizador de datos** aukera aktibatzeke.

**Oharra:** telefona kudeatzen lagutzeko ematen zaizu erabilera-informazioa. Baliteke informazio hori bat ez etortzea zerbitzu-hornitzaileak kobratzen dituen zenbatekoekin, ez baitira modu berean neurten.

# Zure telefonoko arazoak konpontzea



## Aplikazio bat abiaraztea edo ezabatzea

Aplikazio bat blokeatu egiten bada telefonoan hura piztean, berrabiarazi modu seguruan: luze sakatu pizteko botoia. **Apagar el teléfono** aukera ikusten duzunean, luze sakatu pantaila itzali arte. Telefonoa **modu seguruan** berrabiarazten da (behealdean dago, ezkerrean). Telefonoa **modu seguruan** berrabiarazten da (behealdean dago, ezkerrean). Gero, saiatu aplikazioa ezabatzeko.

## Telefonoa berrabiaraztea

Telefonoak ukituei eta botoiei erantzuteari uzten badio, berrabiaraz ezazu. Horretarako, luze sakatu pizteko botoia, pantaila itzali eta berrabiarazten den arte.

## Softwarearen eguneraketak bilatzea

Eguneratzeak eskuz bilatzeko, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Sistema** > **Actualizaciones del sistema**

Telefonoak WiFi konexio baten bidez (eskuragarri badago) edo sare mugikorraren bidez deskargatzen ditu eguneraketak. Eguneraketak WiFi bidezko konexioa duzunean deskargatzea gomendatzen dizugu. Eguneratzeak handi samarrak izan daitezke (25 MB edo gehiago) eta litekeena da ez egotea eskuragarri herrialde guztietan.

**Oharra:** telefonoa eguneratzean, ziurtatu bateriak baduela behar adina karga eguneratzea burutzeko.

Sare mugikorraren bidezko eguneraketak ez badaude eskuragarri zure herrialdean, ordenagailu batean egin ditzakezu. Ordenagailuan, joan hona: [www.motorola.com/update](http://www.motorola.com/update).

## Berrezartzea



Telefonoan fabrikako datuak berrezartzeko eta telefonoko datu guztiak ezabatzeko irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Sistema** > **Restablecer** > **Restablecer datos de fábrica**.

**Abisua:** Deskargatutako aplikazio guztiak eta telefonoaren erabiltzaile-datu guztiak ezabatuko dira. Hodeiko datuak ez dira ezabatuko.

## Telefono lapurtua

Android gailuen administratzaile bat du telefonoak, eta, haren bidez, gailua urrunetik blokeatu edo berrezar daiteke lapurrengandik babesteko. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi: [www.google.com/android/devicemanager](http://www.google.com/android/devicemanager).

## IMEI zenbakia lokalizatzea

IMEI zenbakia aurkitzeko, idatzi telefonoaren teklatuan \*#06#. Hau ere egin dezakezu: irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Sistema** > **Acerca del teléfono** > **Estado** > **Información del IMEI**.

**Oharra:** zerbitzuak eta laguntza jasotzeko, ikusi [Laguntza gehiago jasotzea](#)



# Irisgarritasuna

Ikusi, entzun, hitz egin, sentitu eta erabili. Irisgarritasun-funtzioak denentzat daude eskuragarri, eta lanak erraztea dute helburu.

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Accesibilidad**.

Telefonoaren irisgarritasun-ezaugarri buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikusi [www.motorola.com/accessibility](http://www.motorola.com/accessibility).

## Lasterbide bat sortzea



Erabili keinuak telefonoan irisgarritasuneko funtzioak bizkor aktibatzen. Informazio gehiago lortzeko, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Accesibilidad** > **Directo a accesibilidad**.

Ukitu **Servicio de acceso directo** eta hautatu aplikazio bat. Lasterbidea aktibatuta dagoenean, sakatu bolumen-botoia hiru segundoz aplikazioa abiarazteko.

## Telefonoari hitz eginaraztea



### Hitz egiteko hautatzea

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Accesibilidad** > **Seleccionar para hablar**.

Aktibatu, ukitu  eta sakatu . Telefonoak pantaila goiko aldetik beheko aldera irakurtzen du. Telefonoak bakarrik irakur ditzan ukitzen dituzun artikulua, ukitu **AJUSTES** > **Modo de lectura continua** guztia irakurtzeko aukera desaktibatzen.

### TalkBack

Erabili TalkBack pantaila ozen irakurtzeko: pantaila-nabigazioak, hautaketak edota liburuak.

TalkBack aktibatzen edo desaktibatzen, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Accesibilidad** > **TalkBack**.

- » **Ukitu** pantailako elementuren bat, deskribapen bat entzuteko edo testua ozen irakurtzeko.
- » **Ukitu bi aldiz** pantailaren edozein leku, ukitu duzun azken elementua irekitzeko edo aktibatzen.







**Irristatu** bi hatz erabiliz, zerrendetan edo pantailen artean mugitzeko.

## Ahotsaren sintesia:

Pantaila-irakurlearen hizkuntza, irakurketa-abiadura eta tonua ezartzeko, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Accesibilidad** > **Síntesis de voz**.

## Braillea

Konbinatu braille-pantaila TalkBackekin, informazioa braillean lortzeko eta ahots-iruzkinak lortzeko.

- 1 Deskargatu BrailleBack™ aplikazioa Google Playtik (irristatu gorantz  >  **Play Store**) eta instalatu telefonoan.
- 2 Irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Accesibilidad** > **BrailleBack**.
- 3 Aktibatu braille-pantaila, eta jarri Bluetooth bidezko lotura-moduan.
- 4 Telefonoan, irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Bluetooth** eta, gero, ukitu etengailua goiko partean, aktibatzen edo desaktibatzen.
- 5 Ukitu braille-pantailaren izena, telefonoarekin lotzeko.





## Telefonoarekin hitz egitea

Esan komando bat irisgarritasun-funtzioak aktibatzen. Adibidez: "Ok, Google, aktibatu TalkBack". Ahots-komando gehiago ezagutzeko, ikusi [Hitz egitea](#).

## Telefonoaren pantaila aldatzea

### Doikuntzak eta pantaila handitzea

Handitu irudiak.




- » **Letra-tamaina aldatzea:** pantailako letraren tamaina handitzen du. Irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Accesibilidad** > **Tamaño de la fuente** Ikusi, halaber, [Soinuak eta itxura pertsonalizatzea](#)
- » **Bistaratzeko-tamaina aldatzea:** pantailako elementuak handitzen ditu. Irristatu gorantz  >  **Ajustes** > **Accesibilidad** > **Tamaño de visualización**.






» **Atximur egitea zooma erabiltzeko:** atximur egin dezakezu, mapak, webguneak eta argazkiak handitzeko edo txikitzeko. Handitzeko, ukitu pantaila bi hatzekin, eta, gero, bereizi. Zooma txikitzeko, arrastatu hatzak hurbilduz. Horrez gain, ukitu bi aldiz zooma gerturatzeko.

» **Pantaila handitzea:** ukitu pantaila hiru aldiz osorik handitzeko, edo luze sakatu aldi baterako handitzeko. Irristatu gorantz  >  **Ajustes > Accesibilidad > Ampliar.**

» **Pantailaren distira:** Irristatu egoera-barra beherantz, eta arrastatu kontrol lerragarria distira-maila doitzeko. Distira maila altuagoan jartzeak laburtu egiten du telefonoaren bateriaren iraupena.




» **Nabigatzailea:** hautatzeko testuek zer tamaina edukitzea nahi duzun webguneetan nabigatzen ari zarenean. Irristatu gorantz  >  **Chrome > Menua  > Ajustes > Accesibilidad.** Hautatu **Forzar zoom**, zooma erabili ahal izateko webgune guztietan.

## Mezuak

Testua idaztea are errazagoa izan dadin, erabili, besteak beste, maiuskulak automatikoki jartzeko aukera eta autozuzenketa. Irristatu gorantz  >  **Ajustes > Sistema > Idiomas y entrada de texto > Teclado virtual > Gboard > Corrección ortográfica.** Edo esan mezua. Ukitu  teklatuan.

## Telefonoaren soinuak antolatzea

### Deiak

Nor ari den deika entzun nahi baduzu, esleitu dei-tonu esklusiboak kontaktuei. Irristatu gorantz  >  **Contactos**, ukitu kontaktua,  eta, gero, ukitu menua > **Establecer tono.**

Dei bat amaitzeko pizteko botoia sakatuta, irristatu gorantz  >  **Ajustes > Accesibilidad** eta ukitu **El botón de encendido cuelga.**

### Bolumena eta bibrazioa

**Joan hona:** irristatu gorantz  >  **Ajustes > Sonido.**



» Arrastatu bolumenaren kontrol lerragarriak, bolumen-mailak doitzeko musikarako, bideoetarako, alarmetarako eta tonu/jakinarazpenetarako.

» Sarrerako deietan telefonoak dar-dar egin dezan (baita txirrina isilik moduan dagoenean ere), ukitu **Vibrar también en llamadas.**

**Aholkua:** bibrazio bat eginarazi pantaila ukitzen duzunean. Ukitu **Opciones avanzadas > Vibrar al tocar** aukera hori aktibatzeko.

# Laguntza gehiago jasotzea

Eskuratu erantzunak, eguneratzeak eta informazioa:

- » **Laguntza:** irristatu gorantz  >  **Ayuda del dispositivo** tutorial interaktiboak, jarraibideak edo ohiko galderak zuzenean telefonoan ikusteko.
- » **Laguntza gehiago jasotzea:** eskuratu softwareak, irakurri ohiko galderak eta askoz gehiago hemen: [www.motorola.com/mymotoe](http://www.motorola.com/mymotoe).
- » **Elkarrizketa batera batzea:** hemen gaituzu: YouTube™, Facebook™ eta Twitter.

## Non aurkitu dezaket araudiari, legeei eta segurtasunari buruzko informazioa?

Informazio garrantzitsu hori errazago eskuratzeko, telefonoaren doikuntzen menuan eta webgunean kontsultatu dezakezu. Berrikusi material hori gailua erabili aurretik. Telefono konektatu batetik material hori eskuratzeko, aukeratu **Ajustes > Sistema > Información legal** eta hautatu gai bat. Materiala webgunean eskuratzeko, joan [www.motorola.com/device-legal](http://www.motorola.com/device-legal) webgunera.

## Zerbitzuak eta konponketak

Galderarik baduzu edo laguntza behar baduzu, laguntzeko prest gaituzu. Sartu [www.motorola.com](http://www.motorola.com) webgunean, eta bezeroentzako arretako zenbait aukera izango dituzu.

# Copyrighta eta marka komertzialak

Motorola Mobility LLC 222 W. Merchandise Mart Plaza Chicago, IL 60654 [www.motorola.com](http://www.motorola.com)

Zenbait zerbitzu, funtzio eta aplikazio sarearen mende daude, eta, gerta dateke eremu guztietan erabilgarri ez egotea; baliteke beste zehaztapen, baldintza eta tarifa batzuk aplikatzea ere. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Produktuaren funtzio, ezaugarri eta bestelako zehaztapenak eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa informazio berrienean inarrizta daude, eta zehatzak dira inprimatzeko unean. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko.

Oharra: eskuliburu honetako irudiak adibide gisa baino ez daude.

MOTOROLA, M estilizatuaren logotipoa eta MOTO marken familia Motorola Trademark Holdings LLCren marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira. LENOVOren marka komertziala da LENOVO, Google Inc.-en marka komertzialak dira Google, Android, Google Play eta beste marka batzuk eta horien logotipo batzuk. MicroSDren logotipoa SD-3C LLCren marka erregistratua da. Dolby Laboratories-en lizentzapean fabrikatua. Produktuen edo zerbitzuen gainerako izen guztiak beren jabeenak dira.

© 2018 Motorola Mobility LLC. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Modeloa(k): **moto e<sup>4</sup>** (XT1944-1, XT1944-2)

Eskuliburu-zenbakia: SSC8C2919-B